

Kant eta ilustrazioa: *sapere aude*

Ilustrazioa, gizakiaren irteera da bere erruzko adingabetasunetik. Adingabetasuna, besteren gidaritzarik gabe nor bere adimena baliatzeko ezintasuna da. Norberaren erruzkoa, nor bere buruaz besteren gidaritzarik gabe erabakitzeko gaitasun eta kuraiarik ezean baizik.

Sapere aude latindar esamoldea era honetan itzul daiteke: “Ausartu zaitez pentsatzera”, “izan adorea zeure kabuz arrazoa erabiltzeko”. Ilustrazio-garaia gizadiaren adingabetasuna atzean uzteko garaia da, gizakia bere kabuz pentsatzen hastekoa.

Kanten iritzian, autonomiak bereizten ditu gizakiak, erabaki pertsonalak hartzeko gaitasunak bereizten gaitu beste izakietatik. Era autonomoan jarduteak, heldutasunera iritsi dela adierazten du. Era autonomoan heteronomia atzean uzten dela esan nahi du; besteen iritzia kontuan hartuz jardutea, norberak iritzi horiek barneratu gabe.

Kant eta ilustrazioa: arrazoimenaren erabilera publikoa eta pribatua

Kant arrazoiaren erabilera publikoaz eta pribatuaz mintzo da. Kanten ustez, arrazoiaren erabilera publikoak askea izan behar du beti; erabilera pribatua, aldiz, mugatu egin behar da sarritan.

Arrazoimenaren erabilera publikoa aditu den norbaitek irakurleriaren publikoaren aurrean egiten duena da; **erabilera pribatua**, aldiz, hari dagokion funtzionario- kargu jakin batean zilegi zaiona.

Hiru adibide, armadako ofiziala, herrikidea (eta apaiza):

- Armadako ofizialak bete egin behar du agindua (erabilera pribatua). Aditu den aldetik, argudiatu, iritzia eman... dezake akatsei buruz publikoaren aurrean, azken horrek epai dezan (erabilera publikoa).
- Herrikideak ezin dio uko egin zergak ordaintzeari (pribatua). Herrikideak ez dio bere betebeharrei huts egingo, zerga horien bidegabekeriari buruzko gogoetak argitaratzen baditu (publikoa).

Arauek edo legeak bete nahi ezean, armada, gizartea edo apaizagoa uztea duten aukera bakarra. Arrazoiaren erabilera pribatuan ez dago askatasunik, Kanten arabera.

Arrazoiaren erabilera pribatuaren askatasunik ezak ez du ilustrazioa galarazten, informazioa emateko, pentsatzeko eta publikoaren aurrean ideiak adierazteko askatasuna baldin badago betiere.

Arrazoi praktikoaren kritika (moralak)

Kantek bere moralak edo etika azaltzen du *Arrazoi praktikoaren kritika* idazlanean. Haren ustez, arrazoiak, ekintzaren gida da. Arrazoi teorikoaren bidez, izana ezagutzen dugu; arrazoimen praktikoaren bidez, aldiz, izan behar duena. Bi kasuetan gu geu gera legegile: arrazoi teorikoan ez ditugu lege naturalak objektuetan deskubritzen; arrazoi praktikoan, aurretik onartu ditugun **lege moralen** eraginpean soilik jokatzeko dugu. Pentsaera kantiarren arabera, **kontzientzi moralaren existentzia** dudaezinezkoa da. Gizakiak eredu ideal batzuen arabera bideratzen eta neurtzen ditu bere ekintzak; onak eta gaiztoak bereizten ditu.

Ekintza-eredu horiek esperientziaren gidariak dira; ekintzarako arauak, jokabideen printzipio idealak. **Kontzientzia moral** honen ardatza lege moralak da. Arrazoi hutsak agerian jartzen dituen legeak deskribatzaileak dira. "*Hau horrela da*" diote. Arrazoi praktikoaren legeak, exijentzia bat agertzen dute, eta exijentzia horiei obeditzeko aukera dugu. "*Horrela jokatu behar duzu*" diote; zerbait egitera bultzatzen gaituzte, baina ez gaituzte bortxatzen, **eginbeharra** adierazten dute. Horregatik, ekintzari eta moralitateari buruzko proposizioak **agindu** moduan ematen zaizkigu. Kantek **inperatiboak** esaten die.

Ba al dago balio unibertsala duen lege moralik? Kanten ustez, eginbehar unibertsala adierazten duen inperatiboak hiru ezaugarri ditu:

1. **A priorizkoa**, ez enpirikoa. Orokorra eta gizakia guztientzat beharrezko izatekotan, eduki enpirikorik gabea izan behar du. Guk geuk bete behar dugu hutsik dagoen eduki hori. Inperatibo moralak nola jokatu behar dugun esaten du. Moralitatearen arau bakarra betebeharra da: lege moralaren arabera ekitea. Betebeharra da lege moral gutxien *a priorizko* forma.
2. **Kategorikoa**, ez hipotetikoa. Inperatibo hipotetikoak helburu bat lortzeko bideak ezartzen dituzte. Ez dute balio unibertsalik, helburua bete nahi dutenentzat soilik balio duelako.
3. **Autonomoa**, ez heteronomoa. Subjektuak berak ezartzen dio agindua bere buruari, arrazoiak kanpoko ezeren mende jarri gabe. Subjektu bakoitza da bere buruari agindu moralak ezarri behar dio.

Kanten arabera, etikaren oinarria nahimenaren askatasunean dago; hau da, arrazoimenak bere buruari legeak ezartzeko duen gaitasunean. Naturak edo Jainkoak ez digu lege etikorik ezartzen, eta subjektua bera da bere buruari ezartzen diona. Ekintzak betebeharraren arabera egin daiteke (legetasuna),

edo betebeharragatik (moraltasuna). Filosofia kantiarrak, moraltasuna eta legetasuna bereizten ditu. Lege juridikoak betetel tizen ditugunean, kanpotik ezartzen zaigun aginduari jarraitzen diogu.

Gizakiek beren jokabidea bideratzen duten printzipio praktikoaren eraginpean jokatzen dute. Printzipioek izaki arrazoidun ororen borondatearentzat baliagarriak direnean, lege bihurtzen dira. **Inperatibo kategorikoak** jarrera jakin bat (ona delakoan) agintzen duten lege praktikoak dira, eta ez dituzte ondorioak kontuan hartzen. Unibertsaltasuna da lege moralaren bereizgarria.

Inperatibo kategorikoaren formulazioa hau da: “Joka ezazu zeure jokabidea lege orokor bihurtzea nahi bazenu bezala”.

Arrazoi huts teorikoak hiru ideia ukatzen ditu: Jainkoa, arima, askatasuna. Arrazoi teorikoak ezin ditu hiru ideia horiek ezagutu. Ideia horiei buruz, ez dago ezagutza posiblerik, baina bai fede arrazionala.

Gure nahimenaren goreneko helburu gisa baieztatzen ditu hiru arrazoi praktikoak:

- **Askatasuna.** Moralitatearen auresuposizio argiena da “Nik egin behar dut” esan dezaket, baldin eta “Nik egin ahal dut” esan badezaket. Askatasuna giza esparruan soilik gauzatzen da; mundu fisikoan, aldiz, kausalitateak eta determinismoak agintzen dute.
- **Arimaren hilezkortasuna.** Hil ondorengo bizitzaren itxaropena pizten zaigu, bizitza honetan gure helburuak behin betiko bete ezin ditugulako, merezitako saria edo zigorra justiziaz erabakitzen delako; gure goreneko asmoek heriotzarekin topo egiten dutelako nahitaez.
- **Jainkoa.** Jainkoarenganako sinesmena naturako ordenaren aurrean sortzen da. Gizakiak bere espeziearen historiaren arrazionalitatea eta zentzua bilatzen dituenean, beste munduan aurkitzen du **asetasuna**.

NIETZSCHE

Kritika mendebaldeko zibilizazioari: Bitalismoa

1. Susmoaren filosofia

Nietzscheren susmoa: bi mila urteotan gizadiak egin duen bidea galbidea eta okerbidea izan da, eta kristautasunari leporatzen dio bereziki horren errua. Gizakiok erratu garen susmoa zabaltzen duenetik, susmoaren filosofia deritzon filosofo taldean koka dezakegu, Marxekin eta Freudekin batera. Nietzschek, zientzian, erlijioan eta filosofian erabili diren ereduak (egia, ongia...) gizakiaren okerreko jarraibideak diren susmoa argudiatzen du.

Mendetan zehar hedatu den Mendebaldeko kulturgintza osoa kritikatzeko du. Nietzschek arabera, Mendebaldean eta bereziki Europan, moral tradizionala gozatu da, konfiantzan oinarritutako giza izaeraren kalterako. Prozesu honek Platonen pentsamenduan du abiapuntua.

Nietzscheren ustez, filosofia tradizionalak egiten duen bereizketa, gainbeheran dagoen bizitzaren isla baino ez da.

Mendebaldearen historia osoaren aurkako erasoan, gorrotoa, ironia eta adimen zorrotza erabiltzen ditu. Iraganari astindu gogorra emanez, eta hurrengo bi gizaldietan nihilismoa nagusituko dela aldarrikatzen du.

Nietzscheren ekarpena kontuan hartzekoa da, Europako kulturaren egoera ustela salatzen duelako, ikuspegi psikologikoa azkeneraino nola eraman daitekeen erakusten duelako, eta **bizitzaren aldeko filosofia** bat sorrarazten duelako.

2. Metafisikaren kritika

Filosofiaren aro tragikoaren amaiera Sokratesekin hasten da. Filosofo greziarrak hasiera ematen dio arrazoiaren nagusigoari, eta horrenbestez, arrazoiak adierazitakoa egiteko agintzen du moralak. Jakintza da gidaria.

Nietzscheren iritziz, Platonekin bitan banatzen da filosofiaren historia: alde batean tragedia-arteak dago; bestean, zientzia-filosofia arrazionala.

Nietzschek goresitako filosofoen artean Tales eta Heraklito aipa daitezke. Heraklitok izatearen finkotasuna ukatu, eta errealitatearen benetako izana mugikortasuna dela dio. Hasiera eta akabamendua bateratuta, etengabe eraldatzen den munduan, prozesuaren barnean errepikapenaren jokoak dago.

Bizitzaren gorabehera guztiak ulertzeko, zientzia eta artea, biak dira ezinbestekoak.

Bizitzaren mamia aldakorra da. Metafisikak uko egin nahi dio errealitatean egon badagoen aldakortasunari, eta uko egiten zaio horrenbestez izanari.

Metafisikak uko egin dio mundu fisikoari, eta benetakotzat agerrarazten du irudimenean sortutako mundua. Nietzscheren ustez, **mundu mugikorra** eta **zentzumenezkoa** jarri behar da abiapuntuan.

3. Transzendentziaren ukapena

Erljioak sortutako transzendentziak gizakia makurrarazi du, eta, Nietzscheren aburuz, horrek egundoko zama jarri du gizakiaren bizkar gainean.

Nietzscheck aldarrikatzen duen bitalismoaren arabera, gizakiak bere barnean aurkitu behar du bizitzarako helmuga. Ez du bere burua kanpoko indarren esanetara jarri behar. Azken batean, **Jainkoaren** eta **munduaren** artean ez dago alderik. Izan ere, Jainkoari aitortzen zaizkion indarrak, gizakiak bere baitan dituen ahalmenak baino ez dira.

Nietzscheck gizakia uztarpetik atera nahi du, haraindiko mundu jainkotiarretik askatzeko. Nolanahi ere, ez du haraindikoaren joera gutxiesten, nork bere burua hobetu nahiak aipaturiko irudipena ekar dezakeela uste duelako.

Izatearen barnean ez dago hierarkiarik, honako mundu hau baizik. Mundu finkoa, espazioz eta denboraz kanpoko, aldiz, pentsamenduaren izate modua baino ez da.

4. Hizkuntzaren iruzurrak

Hizkuntzak **engainatu** egiten du, bere joskeraren eta gramatikaren barnean erabiltzen diren hitzei existentzia ezartzen zaielako. Dena dela, hitzaren jatorria, elkar ulertzeko beharrezana besterik ez da.

Tankera artistikoa eta intuitiboa duena, gauza finkoen engainuz ohartzen da. Jarrera zientifikoa duenak, aldiz, kontzeptuen atzean zerizan finkoa dagoela sinesten du, eta bere burua engainatzen ari da. Filosofoak bere horretan utzi behar ditu kontzeptuak, eta arte gisako **intuizioak** antzematen ahalegindu behar du.

5. Bitalismoa: bizitza-kontzeptuekin eskurazina

Filosofia bitalistaren ustez, funtsezko errealitatea den bizitza, sen, grina eta afektuen multzoa da, eta beraz, zerizan arrazionalik gabeko zerbait. Ondorioz, ezin daiteke fenomeno bitala kategoriatan arrazionalen bidez ezagutu, eta intuizioa eta **irudimena** adimena baino baliotsuagoak dira.

Bitalismoak **metafisikaren** kontzeptuen **kritika** orokorra egiten du.

Bizitzarena bentako muina jardun estetikoak betetzen du; hots, tragediak, eta ez filosofia kontzeptuak.

Nietzscheren arabera, **bizitza** etengabe **eraldatzen** ari da. Arrazionalismo intelektualek, aldiz, bizitza etenean eta geldirik dago.

Apolinea eta dionisiakoa

Apolo eta Dionisos bizitza ulertzeko elkarren aurkako bi jarreraren sinbolo, eredo edo jainkoak dira.

Apolo argitasunaren eta **neurritasunaren** jainkoa da. **Dionisos**, aldiz, **itxuragabea** eta **neurrigabearen** adierazgarria da. Ezin daiteke bata bestea gabe bizi. Europako filosofia-tradizioan, joera arrazionalistak dioten moduan, arrazoi-arimak mendean hartu behar ditu sumina, atseginak eta bestelako irrikak arimaren jardunetan.

Nietzsche horixe bere leporatzen dio filosofiari, eta ondorioz, aipatutako bi joeren arteko **oreka** berreskuratzeko aldarrikapen sutsua egiten du. Joera zientifiko arrazionalista (Apolo) ez da errealitatearen mugikortasunaz ohartzen. Hori dela eta, ez dago ez espiriturik, ez arrazoimenik ezta egiarik ere, horiek guztiak fikziozkoak dira, baliorik eta etekinik gabekoak.

Nihilismoa eta balioen transmutazioa

1. Nihilismoa

Nihilismoa Jainkoaren heriotzaren ondorioa da. Balioak, gizakiari babesa eta argibidea ematen zizkietenak, bertan behera gelditu dira itota. Bizitza tinkoa ukatuz, nihilismoaren lehen aztarnak ezartzen dira moralitasun tradizionalaren eskutik.

Bizitzaren edo gorputzaren nahi eta gogoei uko egitea irtenbiderik gabeko egoera batera garamatza. Azkenik, **munduak azalpenik ez** duela ohartzen da gizakia.

Gizakia mundura jaurtikia izan delako ustea, eta, beraz, nondik datorren eta nora doan ez jakitea, nihilismorantz bultzatzen duen beste alderdi bat da.

Mundu transzendentea izan da gizakiaren bizitzari zentzua eman diona, eta orain, mundu horrek utzitako hutsuneak itxaropena edukitzea galarazten dio gizakiari.

Gizabanakoa uneoro ari da gauzak eta gertakizunak balioesten, batzuk ontzat hartzen ditu, eta beste batzuk, errefusatzat.

Nihilismoa estu lotuta dago botere-nahiarekin, azken hau itzaltzen den moduan nihilismoa areagotu egiten da.

Gizakiak **baiezkoa** eman behar dio **bizitzari** gogo biziz eta adore handiz.

Balio guztien eraldaketaren ondoren, garailearen moralak eta erabaki-ahalmena nagusituko dira. Gizaki bakoitzak gizabanako bezala jokatu du, eta askatasun osoz erabakiko du, bere burua inoren mende jarri gabe.

Nietzscheren proposatzen duen gizarte berria, <<Jainkoa hil da>> aldarrikatzen denez gero, gizakiari **dena zilegi** zaio. Beraz, askatasun osoa, eta indarrean dagoenari muzin egitea dira Nietzscheren proposamenak.

2. Balioen transmutazioa

Nietzscherentzat, Mendebaldeko kulturen indarrean egon diren balioak kaltegarriak dira, bizitzaren aurkakoak direlako, eta desagerrarazi egin behar dira horrenbestez. Morroien moralaren ordez, jaunen moralak ezarri behar da.

a) Morroien moralak eta jaunen moralak

Moralaren kritikan, Nietzschek Genealogiaren metodoa erabiltzen du. **Genealogiaren** lehen emaitza bi moralen aurkikuntza da: jaunen moralak eta morroien moralak. <<Ongia>> eta <<gaizkia>> kontzeptuen sorrera ikertzen du.

Ona = noblea = botereduna = zoriontsua = Jainkoek bedeinkatua

<<**Ona**>> hitzak indartsua, menperatzailea, harroa eta beldurgarria esan nahi du; <<**gaiztoa**>>, aldiz, arrunta, umila, gezurtia eta mendekoa da.

Jainkoen moralaren ikuspegitik, ona gudaria da. Makala bestearen lepotik bizi dena da, eta inozo samar pentsatzen duena txarra da.

Nietzscheren iritziz, morroien morala jaunen aurkako amorrazioak sortutako jokabidea da; jaunen morala, aldiz, goi-mailako bizitzaren adierazgarria da.

Morroien morala gorroto, bekaizkeria eta ezintasunetik sortzen da. <<Ona>> behartsua da, umila, laguntzeko prest dagoena, bakezalea. <<Gaiztoa>> ,aldiz, boteretsua eta beldurgarria da. Morroien moralak berdintasuna bilatzen du.

Morroien morala berdintasunean oinarritzen da; **jaunen morala, hierarkian** eta **mailaketan**.

Gizaki indartsuak, bere izatez sortzen ditu balioak. Mendekoak, aurre egin nahi dio indartsuari, eta taldearen bizitzako balioei eusten die.

Moralaren historian, biek izan dezakete bizitzeko nahikoa leku, baldin eta taldeak jokaera eta balio propioak taldearen barnean mantentzea erabakitzen badu. Alabaina, taldeak indartsua menderatu nahi du.

Gizabanakoak azaleratzen dituen kilikagarriak eta desirak bere neurrian ezartzeko edo apaltzeko, giza taldeak, kontzientzia morala egokitzen du gizakiaren baitan.

Nietzscheren **gogorkeria** aipatzen du oztopaturik dagoen senezko kilikagarri modura.

b) Moral berria

Ongia eta gaizkia bereizteko, nolakoa den bizitza pentsatu behar da. Nietzscheren **botere-nahia** balioen sortzaile garrantzitsuena dela dio.

Botere-nahiak gidatzen duen bizitza, bizitza osasuntsua, indartsua eta erabatekoa da jaunen moralaren eragilea. Morroiaren eragingarriak, aldiz, honako hauek dira: indartsua itotzea, ahularen bizimodua bizigarri bihurtzea eta espiritu sendoak bere buruan duen uste sendoa galaraztea.

Kristautasunaren aurkako kritika. Jainkoaren heriotza eta Supergizakia

1. Kristautasunaren aurkako kritika

Nietzscheren aburuz, erlijioa beldurretik sortzen da. Erlijioak ez du inoiz egia esan. Nietzscheren erlijio-arau ororen aurka jotzen du. Kristautasuna **platonismo herrikoia** da, filosofia eta moral arrunta, ahul eta esklabotzat.

Erlijioa herri xehearen matxinada da jabeen aurka. Erlijioak baditu ere alderdi onak, aszetismoaren eta herri xehearen heziketaren aldarrikapena besteak beste, baina oro har, erlijioak eta batik bat kristautasuna eta budismoa, gaixo eta ahulen erlijioak diren aldetik, gizakiak bere mugak gainditzeko **oztopo** gaindiezinak izan dira.

Jainkoaren heriotzak hain zuzen, ateak zabaltzen dizkio gizakiaren erabateko garapenari.

Nietzscheren aburuz, Jesu Kristo ez da Jainkoaren Semea, edo Elizaren sortzailea, gizon apal, onguratsu eta bihozbera baizik.

Nietzscherentzat, bekatua Elizaren maltzurkeriaren tresna nagusia da. Bekatuaren **beldurra** biziera zapuzten du.

Nietzscheren arabera, begien aurrean dugun mundu hau besterik ez da existitzen.

2. Jainkoaren heriotza

Kristautasunaren ideia guztien oinarrian Jainkoa dago, eta bizitzaren aurkakoa da hori. Gizakiak berak bete lezake Jainkoak utzitako lekua.

Nietzscheren iritziz, **Jainkoa desagertzean**, desagertu egiten dira ere hari atxikitako balio kristauak. Jainkoaren heriotzak balio absolutuaren eta lege moral objektiboaren suntsipena ekarriko du.

3. Jainkoaren heriotza eta azken gizakia

Nietzscheren iritzian, Jainkoaren heriotza **gertakizun historikoa** da. Gizon-emakume guztiek eragin duten heriotza da. Jainkoaren heriotzak utzitako hutsuneaz jabetzen den lehena. Gizakia zoroa da.

Jainkoaren heriotzaren ondorengo urratsak bi dira: arriskutsua eta txalogarria.

Gizakia **noraezean** gelditzeko arriskua da lehen urratsa. Azken gizakia gu guztiok gara, igandeetan Jainkoarengan sinesten duena, bizitzaren asperdura ekiditeko aisia besteek antolatu diezaioten uzten duena.

Txalogarria litzateke **supergizakia** konturatzea. Gizon berriak sormena gara dezakeela eta haraindiko munduan zituen ametsak lurrera ekar ditzakeela.

4. Supergizakia

Supergizakia ez da bere horretan agertzen. Idealismo oro galdua, inolako asmorik eta indar sortzailerik gabe dagoen azken gizakiaren aurrean, supergizakiaren itxaropenaz arituko da.

Gizadiz gizadi, gizakiak bilakaera bat izan du, eta aurrera begira jarraitu du. Hau da, supergizakia etorriko dela uste du Nietzschek.

Nietzschek **iraganarekin apurto** nahi du gizaki berri bat sortzeko, eta gizakiak aurrera begiratu behar du beti.

- **Gizakiaren eraldaketa-prozesua**

Giza esentzia etengabe eraldatzen ari den zerbait da. Gizakiak pobretua eta bihurtua du bere burua hasieran, eta askatu egiten da ondoren Jainkoaren heriotzan.

Nietzscheren arabera, **idealismoaren mende** dagoen gizakia **gameluaren** antzekoa da. Agindu astunak eta zorrotzak bete nahi ditu, Jainkoaren esana bete.

Gamelua lehoi bihurtzen denean, **idealismoaren gainbehera** dator, eta lehoiak bere zama bizkar gainetik kentzen du. **Lehoiak** ezetza luzatzen dio gameluari, eta bere burua agertu nahi du **aurreko bizieraren aurka** betiere.

Lehoia ez du indar nahikorik balio **berriak** sortzeko, eta **haur** bihurtzen da, haurrak soilik duelako sormena balio berriak sortzeko.

Jainkoaren heriotzaren prozesuaren ondorioetako bat **supergizakiaren etorrera** da.

Botere-nahimena eta betiereko itzulera

1. Botere-nahimena

Nietzscheren arabera, gizakia uneoro bere burua hobetzeko eginahalean dabil. Zenbat eta kementsuagoa eta indartsuagoa izan bizinahia, orduan eta handiagoa izango da gizakien arteko desberdintasuna.

Botere-nahia ez da gizakien kontua soilik, beste bizidunek ere badute hori, **bizi-maila handiagoa** eta **hobea** lortzeko nahimena. Eguneroko ekintza

guztietan, bizitzak bere botere-nahia azaldu nahi du, forma garaiagoak lortzeko edo alboko biziduna garaitzeko.

Ez dago egia absoluturik, bizitza etengabe aldatzen ari delako. Aparteko aldakuntzarik gabeko munduan bizitzea erosoagoa dela ikusirik, itxurazko kontzeptu batzuk sortzen ditu filosofiak.

Gizakiak asmatutako kontzeptu batzuk egia eztabaida ezin bihurtu dira.

Botere-nahia nor bere buruan uste osoa izatea da, **bizitzaren ahalbidean sinistea**.

Inor itzalpean izateko modua, **norberaren indarraren jakitun** izatean oinarritzen da.

2. Ezagumena eta botere-nahimena

Nietzscheren ustez, zientzia egiten duen gizakia ez da errealitate objektiboa taxutu nahi duen <<subjektua>>. Giza eboluzioaren eragile nagusia ez da adimena edo jakiteko grina, botere-nahia baizik.

Ezagumenaren aplikazioa lortuta dago **biziraupenarekin**.

Adimenaren xedea ideiak aditzea edo ulertzea da.

3. Betiereko itzulera

Nietzscheren betiereko itzuleraren teorian, behin eta berriro **errepikatzen den errealitatea** honako honi kontrajartzen zaio: gertagarri guztiak noizbait gertatu dira jada. Beraz, aurrerantzean gertatzeko dagoen guztia ez da gutiz berria izango, iraganean gertatu behar zuelako.

Edozein denbora tartean gertatzen den guztiak inoiz gertatua izan behar du. Hori horrela, aurrekoa behin eta berriz errepikatuko bada. Alferrik da supergizakia gauzatzeko eginahalean aritzea. Etorkizuna alde aurretik finkatuta egon daiteke. Betiereko itzulera aurkako kontzeptuak direla pentsa daiteke.

Zaratrustak, supergizakiaren eta betiereko itzuleraren teoriak bateratzeko, **etorkizunaren** ikuspuntutik ahaleginduko da biak bateratzen.

Gaur egungo jokamolde eta erabakiekin etorkizunean izango duen portaera-eredua zehazten ari da gizakia.

- Itzuleraren ikuspegi guztiz materialista (ezina)
- Historiari buruzko ikuspegi ziklikoa (ez lineala)
- Ilustrazioaren progresioari buruzko ikuspegiaren ukapena.

Marx: erlijioa-alienazioa

Nietzsche eta Marx ateok dira, eta erlijioaren aurka jotzen dute gogor. Nietzscharentzat, erlijioa jabeen aurkako **herri xehearen matxinada** da, eta herri xehearen balioak goresten ditu.

Marxek aurkako bidetik jotzen du. Haren ustez, erlijioa klase menperatzailearen asmakizuna da klase menperatua uztarpean edukitzeko, herri xehearen iraultza geldiarazteko.

Alienazio kontzeptuaren bidez, bere baitatik zerbait galtzen duen gizakiaren egoera adierazten dugu. Marxen aburuz, lanarena da alienazio nagusia, eta hortik sortzen dira gainerakoak.

Sistema kapitalistan, gizakia gauza bihurtzen da, lan-indar huts bihurtzen da. Gizaki egilearena den emaitza hori beste pertsona baten jabetza bihurtzen da. Giza produzitzaileak eginikoa inorentzeak haren burujabetasunaren galera dakar.

Langileak bere izate osoa jartzen du objektuan, eta berea den objektu hori kentzen diotenena, gauza bihurtzen da. Gizakia bera salgai dago, askatasuna galdu eta giza izatea kendu diotelako.

Alienazio ekonomikoak beste alienazio mota batzuk eragiten ditu. Hona hemen **marxismoak** aipatzen dituen alienazio batzuk:

- **Erljio-alienazioa:** Marxen ustez, gizarte-klase menderatzaileak erlijioa sortzen du klase menderatua uztarpean edukitzeko. Erljioaren esanetan, giza zorientasuna haraindiko munduan dago, eta gizakia mundu honetara sufritzera etorri dela dio, ondoren zerua lortzeko. Erljioak injustiziak justifikatu egiten ditu, eta etsipena eta zuzengabekeria dira alienazio horren ezaugarri nagusiak.

XX. mendeko pentsamoldearen oinarriak

1. Darwin

Darwin zientzialaria, eboluzioaren teoria formulatzen duen egilea da. Kopernikoren ondoren, Darwinena izan zen giza nartzisismoak jaso zuen

kolperik handiena. Darwinismoak, biologiaren etorkizuna eta giro intelektualaren etorkizuna aldatzen du. Darwinen teoriak aldaketa eta garapenaren ideiak aurrerapenaren eta arrazionalismoaren nozioekin lotzen dituen ideia erromantikoaren kontra borrokatu behar du.

Eboluzioaren teoriaren arabera, gizakia aurreko espezieen eboluzioaren emaitza da. Espezieak banan-banan sortzen dira, era aldaezin eta perfektu baten bidez, inolako aldaketarik gabe. Suntsitu egiten du espezieen finkotasunaren ideia. Erljio nagusiek zabaldutako ideiei ere aurre egin behar die. Beraz, errealitatearen aurrean arrazoimenak lehentasunari uko eginez, balio moralen autonomiaren oinarriak suntsitzen dira. Erantzun egiten dio munduari buruko ikuspegi transzendentalarik gehien interesatzen zaion galderari: Nondik gatoz? Darwinismoak erantzun ez-mitiko ez-teologiko bat ematen dio, horixe da haren ekarpen handiena. Lehen aldiz, giza generoaren historia errealista bat proposatzen da.

2. Marx

Marxek irauli egiten du idealismo hegeliarra, eta errealitatearen funtsa indar ekonomikoek osatzen duten **Historia** dela azpimarratzen du. Errealitatea ez da jada Ideia edo Espiritu absolutua, Historia baizik. Eta Historia produkzio-indar harremanen arteko loturaz osatuta dago.

Filosofia produkzio ideologikoa da, gizakiari garrantzitsu den gauza bakarrean pentsatzea eragozten diona. Ideologiek eragotzi gizakiari gizaki modura garatzea.

Analisi marxistaren arabera, <<giza esentzia>> ez da existitzen. Existitzen dena gizakiak historikoki egiten duena da. Marxek, **materialismo historikoa** proposatzen du materialismo naturalistaren ordez.

Materialismo historikoaren teoriaren arabera, gizadiaren historiak zientzia ekonomikoaren legeei jarraitzen die, ekonomia historiaren funtsezko eragile delako. Marxismoa filosofia praktikoa eta iraultzaile bihurtzen da, langileen eta kapitalisten arteko borrokara deitzen duelako paradisu **komunista** lortzeko.

Dialektika idealista dialektika materialista bihurtzen da.

3. Nietzsche

Darwinen fruitua da. Nietzsche arrazoian oinarritutako balio tradizionalen aurka dago. Ezbaian jartzen du hizkuntza logikoa. **Salaketa** honen bidez, krisi sakona eragiten du mendebaldeko kontzientzian, eskatzen eta gurtzen zen guztiaren oinarriak suntsitu ditu.

Nietzschenk Darwinen baztertutako kontzeptu bat gogora ekartzen du: bilakaeraren kontzeptua. Haren esanetan, filosofiak bilakaera erruduntzat hartzen du, eta, ondorioz, gaitzespena jasotzen du. Platonen ustez, asmatutako munduan ez dago borrokarik, ez minik; mundu hori eraikuntza bat da, eta **Jainkoa** dago haren gailurrean. Nietzscherentzat, mundu hori eraikitzea eta sortzea mundu naturaletik ihes egitea da. Jarrera hori bizitzari uko egiten dion gizakiari dagokio; bizi-balioei uko egitea gaixoari dagokio.

Nietzsche **metafisikaren aurka** borrokatzen da, eta laguntza bilatzen du azalpen naturalistetan. Nietzsche kultura berriaren oinarriak finkatzen ahalegintzen da. Gizakiek eraikitzen dute. Nietzschenk plano adierazgarri berri bat sortzen du errealitatea interpretatzeko, eta haren dimentsio kritikoa egoera positibo horren araberakoa da.

4. Freud

Marxen eta Nietzscheren antzera, Freudek ere Mendebaldeko kontzientzia kritikatzeko du, eta kritika hori azken ondorioetaraino eramaten du haren **teoria psikoanalitikoak**.

Freudek kontzientziaren ahuldadeak, konplexuek eta minek mugatutako humanismoaren ideia plazaratzen du, eta agerian uzten ditu horrela arrazoiak erabakitzeko orduan aurkitzen dituen kondizionamenduak. Gainera, zalantzan jartzen ditu giza osotasunaren ideal handiak.

Freudek, **nia** baldintzatzen duten egiturak kontrajartzen ditu: libidoa eta **supernia**.

Hurbilketa orokorra XX.mendeko filosofiei

XX.mendearen lehen zatian marxismoa, existenzialismoa, bitalismoa eta mugimendu analitikoak sortzen dira.

XIX.mendean **hegelianismoaren** aurkako jarreraren honako hau aldarrikatzen du: bizirik iraun nahi izanez gero, filosofia ezin daiteke Hegelen erara aritu, eta pentsatzeko modu berriak aurkitu behar ditu.

XIX.mendean zientzia partikularren emantzipazio-prozesuak krisia eragiten du filosofian. Filosofia **eremuak galduz** doa. Emantzipazioa natura-zientzietatik eta giza zientzietatik dator.

XX.mendean, fisikak eta matematikak garrantzi handia hartzen dute. **Fisikaren garapenak** hainbat eskola neopositibista sortzen ditu.

Filosofo batzuk metodo zientifikoak analisi filosofikoan aplikatzen ahalegintzen dira. **Filosofia analitikoak** sortzen da, ez du onartzen metodo zientifikoak arazo filosofikoak ebazteko duen nagusitasuna, hizkuntza idealaren bilaketaz arduratzen da. **Filosofia kontinentalak**, Nietzschek irekitako zaurian sakontzen jarraitzen du.

Filosofia positiboak ezagutza egintzen esparrura mugatzen du. Zientzia, fenomenoaren sailkapen bat da, eta ezin daiteke azalpen zientifikokorik eman gertaera naturaletatik at dagoenez. Jarrera antipositibista zientziaren eta filosofiaren bestelako oinarria jartzen ahalegindu, eta uko egiten dio lehenengo intelektualismoari. Joera hau hiru ataletan dago egituratuta: **neokantismoan, bitalismoan eta historizismoan.**

Filosofia ez dago XX.mendeko gertakari historiko handietatik at, eta gertakari horietako baten funtzioak krisia eragiten du: **Auschwitz**. Izugarrikeria honek erantzun zaila duten hainbat galdera sortzen ditu. Galderak teoria kritikoak eragiten dituzte, mahi gainena ipintzen da filosofia egiteko saialdiaren eta proiektu ilustratuaren berriztapenaren ahalbidea.